

zuzendariari

(0034) 943 300 222

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NAren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.



zuzendariari@egunkaria.com



Martin Ugalde kultur parkea 20140 Andoain

Euskaldun zaharrok burumakur!

Amaia Ezenarro • ETXEBARRIA

Selektibitatearen egunak gainean nituela ohartzeak erotu egin ninduen. Hala ere, larregi ere ez nuen ikasi. Aurreneko egunetan egindakoak ez ninduen gehiegi lasaitzen, baina euskarako azterketan nuen aukeran markagailua lehertzeko asmotan nintzen. Ordurako plana egin nuen: afa-lostean telebistako saioetatik edoskitako hitz handiak biharamunean azterketan jartzea besterik ez zitzaidan bururatu. Ez zen bide ankerra; lehendabizi Xabier Usabigaren hiztegi handia xurgatu eta ondoren Euzkitzeren hitz-joko eta Biblia errimatua hausnartu. Afaltzen ari ginela euskarako azterketako gaia zein izango zen asmatzen

ari nintzen, isilik eta gogotsu. Ni Felix kuttunaren mendikateekin nenbilen dantzan eta bat-batean airera bota nuen. Izan ere, Albertok hamalagarrena osatu zuenetik ez zen denbora asko igaro. Ohera joan eta katebegiak elkartzeari ekin nion, katea osatu nuen arte: «Gehien nekatu hintzen tokian har ezak atsedean». Hitz horiekin zuzenduko nintzaion Felixi, Egañaren gidoiari antzeman. Iritsi zen eguna. Ingeleseko azterketarako ez nuen libururik ireki. Nahikoa nuen nire «zilarrezko katea» nola zintzilikatu pentsatzea.

Euskarako azterketa testuan *Oinak izarretan* irakurri nuen eta Iñurrategitarrenganako miresmena adierazteko aukera ezin hobia egokitu zitzaidan. Iritzia aurretik pentsatutako esaldia jarrita biribilduko nuen. Hala ere, arantza anker batek nire go-

zamenetik urrundu ninduen: ohikoa baino errazagoa zen azterketa. Testua, honi buruzko bost itaun eta iritzi pertsonala besterik ez zegoen. A ereduak pozarren egongo ziren, baina gogoratzekoa da Euskal Herriko Unibertsitaterako hautapropa direla eta ez Gaztelarako, gaztelaniako azterketa izugarrian hori bazirudien arren, ezta hirugarren mailarako ere, errazegia zelako diot. Horretaz gain, itzulpenak ikustekoak ziren! Gero esango dute Euskal Filologia bukatzen ez dagoela lanik. Ez dituzte esaldi horiek irakurri. Gainera, esan ziguten euskaraz idatzitako azterketak ulertzen ez bagenituen gaztelaniazkoak genituela atzeko aldean, itzulpenak ez zirela hain egokiak eta. Hori esan eta lasai asko geratu ziren. Aurtengo azterketan, euskarakoan, maila handia jaitsi dutela esateko idazten dut eta az-


terketakoa «euskaria barik huskeria» zela esateko. Beraz, neurriak hartu beharrean gara, euskara eta gaztelaniako azterketak elkarrekiko orekatu beharra baitago.

Erraza da pertsona bere onetik ateratzea


Joseba Austin Arzallus • DONOSTIA

Arestian dohain berezi baten jabe naizela konturatu naiz; alegia, automobilariak urduri jartzeko gai naizela. Aski dut horretarako nire autoa oinezkoen pasabideen aurrean geratzea. Berehala sumatzen dut garondoan atzetik ditudan automobilarien artegasuna, eta atzerantzko ispiluari esker egonezinaren isla dakusat euren aurpegietan. Erraza da, gero, pertsona bere onetik ateratzea.

hemeroteka



galdeiozu... ?

OLATZ
ALTUNASEIk egindako
euskararen kale
neurketaren
koordinatzailea

Kale neurketan parte hartu nuen. Batzuetan oso zaila egin zitzaigun jendea zein taldetan sartu eta abar. Ez litzateke komenigarria neurtzaileak adituak izatea?

Nahikari Ayo (Gernika)

Ezinezkoa litzateke neurtzaile guztiak adituak izatea, orotara 750 neurtzaile inguru jardun baitira datu-bilketan. Hortaz, datu-bilketarako metodoak erraza behar du izan, eta, gure ustez, ez du aparteko zailtasunik. Hala ere, neurtzaileak trebatzeko prestakuntza saioak egin dira, eta neurtzaile asko aurreko neurketetan ere arituak dira. Datuak jasotzean zalantzazko kasuak ez neurtzea izan da araua. Dena den, zalantzazko kasu batzuk jaso badira ere, ez dute desbideratzerik eragin emaitza orokorretan, eta horren adierazle da neurketa batetik besterako datuen koherentzia.

Uztailaren 16tik aurrera **Iker Pou • Eskalatzailea** izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua. Bidali zure galderak ordurako.

hirusta

Asisko Urmeneta



Azken txoznara

Sanferminetako ene oroitzapen (h)aurrena kartoizko zezena da, eta gure lasterka estatikoa foto zuri-beltzean. Eta Donan Pher, jakina. Honatago jinik, Martaren besoetan ikusten dut ene burua Eguzki Irratiaren txozna parean; baffleetatik La Pollaren la la la burlosoa gortzeko bolumenean. Marta nobia neukan, ene aldetik; hau da, nik itsuski maite bainuen eta berak ni bat ere ez. Ez zen azkena izanen. Ordea Sanfermin lorios haietan utzi egin zidan egiten... gure adinean egiten zen oro; eta hantxetan eseri zen pazientki, idi otzana bezala, bularrak oratzen nizkion bitartean. Oihala. Urteren bat geroago etxe ezezagunean atzari nintzen zazpian. Saihetsean, aspaldiko amorio platonikoa buluz gorri gorria: Maite feminista aktibista, heldua adinez, soinez eta juzkuz. Bezperako alkohol guztiak ahora hupaturik, toing jeiki nintzen, eta korridorean topatu bizardunak seinatu zidan komuna. Ene ikara odola zorroka bota nuenean, baina ez nuen deus salatu; Herriko Tabernara gosaldutxo genuen gero, eta orduan Maitek eman zidan ene desbirgatzearen berri, bere ahizpa eta bizarduna lekuko. Inondikoak ere, norberak huts egin diezaioke berorren desloratzeari. Nik hasteko bai. Kanpora atera nintzen odol haboro botatzera, eta karrika mihise gorrituak erakutsi zion sarriko prozesioari ez nintzela gehiago haurra. Besta inizatikoak omen dira Sanferminak, eta izan ere, entzierrillotik entzierrora mustu ohi gara iruinseme eta iruinalaba gehienok, menderen mendetan. Gogo present; edo absent. Horrengatixek, Barrakak eta Herriko Taberna tenplu erritual biziak dauzkagu, eta ez dugu onesten alkate zein juje arrotzek gure baime-nik gabe ukitzea. Eta klito.